

ttipi-ttapa

1993.eko Uztailak 1

113. zenbakia

dohain banatzen da



**TRADIZIOA KONTSUMOAREKIN
EZKONDU DA**



**JAI ZORIONTSUAK DENARI
FELICES FIESTAS A TODOS**

**BETI ZUEKIN
ZUEN KUTXA**

oto: Tellexea . Argazia



**CAJA DE AHORROS DE NAVARRA
NAFARROAKO AHIRREZKI KUTXA**

non - zer

-
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/24** **HERRIZ HERRI**
 Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta... Lesakako beste buruzko Gehigarri berezia.
-
- 25** **KIROLAK:** Amaiur A txapeldun 600 kilotan Nafarroako sokatira txapelketan.
-
- 26** **ERREPORTAIA:** «Ezkontza: Eliz-ohitura baino zerbait gehiago»
 Joxemanuel Irigoien
-
- 28** **ELKARRIZKETA:** Jaione Iparragirre, Leitzako Okile taile-rreko arduraduna: «Beren eskuekin gauzak egiteko gai direla ikusterakoan, autoestima hartzen dute».
 Eli Lizaso eta Idoia Martinez
-
- 30** **MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
 Tirada: 5.500 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
 31780 BERA
 Tfnoa.: 63 11 88
 Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Eurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla.....450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450805

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe.....(908)776314

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO**ZENTRUAK:**

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

W Botikak

► **Uztailaren 3-4ean**, Bera, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Uztailaren 10-11an**, Arantza, Ituren eta J. Iturralde (Elizondo).

W Zozketa**► LEKAROZ****UBI IKASBIDAIA**

Zenbaki sarituak:

19290 zbk. Mallorcara

bidaia; 118503 zbk.

Benidormera bidaia eta

70104 zbk. Zuberoan

egonaldia. Sariak *Eroski**Bidaiakeko* edozein

bulegotan jaso daitezke

irailaren 11 baino lehen.

W Bestak**► LESAKA**

Uztailaren 6tik 10era (ikus xehetasunak erdikaldeko gehigarrian).

► AZPILKUETA

Uztailaren 7tik 11era. (Ikus xehetasunak 20. orrialdean)

W Musika**► LESAKA**

Uztailaren 6an, as-teartea, Mikel Markez eta Urtz gaueko 11,30etan.

Uztailaren 7an, as-teazkena, Lin Ton Taun eta EH Sukarra gaueko 11,30etan.

W Bota bertsoa**Julen ZELAIETA**

Bortzirietako Bertso Eskolakoa

Gaia: Atotxa zaharra**Doinua:** Peñagarikanorena

Larogei urte biziarekin ta orain dena atzera zure aurretik pasatu ziren hainbertze golen aukera futbolariak onen onenak liga irabazitzen Gajate eta Herrera Erreal poztutza (bis) Eta liga bat irabazita pozik gelditutzen gera zeren amets bat bihurtu zundun egi oso izatera (bis).

Partiduetan egoten zinen zu dena jendez beteta kopuru hori zenbatuz gero zuk baduzu aunitz beta zure barruan egonak dira Gorriz eta Zelaieta Larrañaga Guruzeta eta Toshaken arreta (bis) zuk sortu zundun zirrara eta hainbeste gol hotsen kanta agur betiko Atotxa eta ongi (e)torri Anoeta (bis).

Zinema

ELIZONDO

ZINEA ILARGIPEAN

Uztailaren 1ean, "Tortugas Ninja II". Uztailaren 5ean "Robin Hood". Uztailaren 12an, "La sirenita". Uztailaren 15ean "Golpe en la pequeña China".

Lekua: Merkatu Plaza.
Ordua: Gaueko 10,30ak.

Bertsokak

LESAKA

Uztailaren 9an (ortzitala) gaueko 11etan pitotalekuan:

Bertsolariak:

Amaia Telletxea, Es-titxu Arozena, Sebastian Lizaso, Jon Enbeita, Jesus M^a Irazu eta Andoni Egaña

Gai jartzailea: Manolo Arozena

Antolatzailea: Arrano Elkarte, Lesakako Udalaren laguntzarekin.

Gastronomia

ANTXOAK PAPILLOT ERARA

Osagaiak 8 lagunendako:

Kilo terdi antxoak, 6 baratzuri, tipul ttiki bat, piper pikante txorizeroa bi puskak, olioak, gatza, ozpina eta perrexila.

Kaxuela batean oliba olio litro laurden bat paratu.



Javier ARRIETAk emana -
Urpe Elkarte - ELIZONDO

Baratzuriak eta tipula fin-finak xehetu. Piper puskekin

batera su bajuan paratu kolorea hartu gabe. Piperrak atera eta kaxuela sutik kendu, epeltzen utzi eta antxoak bota. Gatza bota eta sutan eduki 3 minutuz kaxuela xuabe xuabe mugituz. Ozpin txorrotada bat bota eta minutu bat gehiago utzi su bajuan. Perrexila xehetua bota.

Sua itzali eta kaxuelari tapa kendu gabe bere hortan utzi bertze bertz minutuz.

Baserriko feria



ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 3.650 pzta. **Zerrigizena** (95-100): 145 pzta/kilo **Zerramak**: 60-80 pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....570
1.koa.....550
2.koa.....535

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....575
1.koa.....565
2.koa.....550
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 370 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 450 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 20.000-22.000 artean eta idixkoak 32.000-38.000 Pzta. artean.

Mestizoak: urruxak 32.000 artean eta idixkoak 40.000-47.000 Pzta. artean.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

J. M. ANDUEZA

X Sua mozteko ateak

- Metalikoak
- Egurrezkoak
- Kristalezkoak
- Korrederak.
- Segurtasunekoak

X Garajerako edozein motatako ateak, neurrira eginak

- Automatikoak eta eskuz ireki beharrekoak

Tfnoa eta Faxa: 630854 - BERA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...



► **Lurdes Artola**

Aresoko postaria

- **Gogoko duzu zure lana?** Bai.
- **Banaketa oinez ala kotzez?** Kotzez errexago.
- **Lagun gehienak herrian dituzu ala kanpoan?** Kanpoan.
- **Bizitzeko, Areso ala Donostia?** Herria bizitzeko eta Donostia maiz joateko.
- **Dantzalekuak ala herriko pestak?** Udan herriko festak eta neguan bestela.
- **Afaria gauean ala gosaria goizean goiz?** Afaria gauean lagunekin.
- **Bizio bat?** Bidaiak.
- **Zein ikastaro duzu gogokoena, jostuna, sukaldaritza...?** Bietara oso gustora joaten naiz.
- **Zer miresten duzu mutil batean?** Jatorra izatea.
- **Rubioak ala morenoak?** Berdin zait.
- **Euskaldunak ala erdaldunak?** Euskaldunak, nahiz eta ni erdaraz aritu.

Kojon Prieto y los Huajolotes, Nafarroa eta Mexico uztartuz

Gor diske-txeak argitaratu berri du Kojon Prieto y los Huajolotes taldearen lehen diska. Inguruko herrietan –Goizueta, Lesaka, Bera...– zenbait kontzertu eman dituzte, mejikana eta mariachiak kantatuz eta Mexikoko doinuei hemengo letra berriak paratuz. Orain arte AEK eta Napatheid aldikariarentzat kantu bana grabatu zuten baina lan honetan 10 abesti dituzte (1 gehiago Compact Diskean).

Beraien estiloa Napar-mex



Kojon Prieto y los Huajolotes taldeak badu dagoeneko Mexikoko doinuez osatutako diska propioa kalean

bezala definitzen dute eta oraindik orain, taldea zenbat lagunek osatzen duten jakitea misterio bat omen da. Kontzertu batzuetan lau bertzerik ez badaude ere, diska grabatzera koan hogeit lagun

inguru bildu izanen ziren. Hala ere, taldearen sortzaile nagusia eta kantaria Gavilanda –Tijuana in Blue taldean Eskroto bezala ezaguna zena– eta Mexikora bidai baten ondoren gogotu omen zi-

tzaion gisa honetako talde bat osatzea.

Musikaren kalitatea goi mailakoa ez bada ere, bestarako eta ongi pasatzeko egokia.

AITOR

**EKAITZA
OSTATUA**

PUY

Altzate - BERA

**ETXEGARAI
BIDEO KLUBA**

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

LEGARRA

• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZU BERRIAK

- ⇒ A-3 eta A-4 fotokopiak
- ⇒ Inprenta lanak enkarguz
 - ⇒ Kautxuzko ziguilak
 - ⇒ Kartelak eta fakturak
 - ⇒ Enkuadernazioak...

Legarra 9, © 637030 - LESAKA



Sunbillako Karrika Nagusia behingoz karrika nagusia izanen da hemendik aintziner. Ekainaren 23an inauguratu zuten saihesbide berria eta aspaldiko partez, lasaitasuna izanen dute. Egunero 4.500 ibilgailu pasatzen omen ziren herritik, hauetatik % 27a pisu haundiko kamioiak gainera. Orain, zubi berria akitzeko ere aprobetxatuko da.

Bosniarrei laguntza bidaltzeko kanpaina guztiz arrakastatsua

Gipuzkoako *SOS Balkanak Elkarteak* karta baten bitartez biziki eskertu egin du Baztan, Bertizarana, Bortzirriak, Leitzalde eta Malerrekako eskola, erresidentzia, jubilatutako elkarte eta parrokie-tatik bildu den laguntza.

SOS Balkanak Astiga-

rragan daukan biltegi-
materialez beteriko 5 kamioi eraman dira gure herrietatik Bosniara bidaltzeko (janaria, arropa, garbikariak...) eta diru laguntzetan, berriz, milioi terdi pezeta inguru (68.000 libera baino gehiago) bildu omen da.

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak

Edukatzaile Espezializatua kontratatu nahi du sei hilabetetarako



Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Edukatzaile Espezializatua kontratatu nahi du sei hilabetetarako. Tituluaz gain, euskara ezagutzea eta gidatzeko karnetaz zuzendatzen da. Meritu guzien ziurtagiriak atxeki behar dira kurrikularekin batera. Interesatua dagoenak inskripzioa egin dezake uztailaren 9a bitarte Etxalarko

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan 8etatik 11ak arte eta Herriko Etxean 11'30etatik 3ak arte. Tfnoak: 635036, 635005.

Etxez etxeko zerbitzua

Bertzalde, etxez etxeko zerbitzua martxan du Mankomunitateak 65 urte baino gehiago dutenentzat, ezindu edo elbarrituentzat eta arazo bereziak dituzten familientzat. Informazioa, 635036 telefonoan.

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



S.O.S. LEURTZA

Pasa den Ate Santuan Leurtza (Urrotz) inguruetan hiru errekor berri egin dira: lehenengoa lagun kopuruarena, inoiz baino gehiago; bigarrena zabor kantitatearena, belarraren gainean zein urean botatakoa, batez ere; eta hirugarrena, zaborraren kalitatearena, arraultze dozena, kaja esneak eta botila ardoak oso-

osorik, zabaldu ga-beak; zer erranik ez erdia kontsumitu eta bertan botatakoak ere.

Mingarria da! Noiz arte zerrikeria hau? Jendeak ez ote daki hain gustora disfrutatzen duen ingurua errespetatzen? Hainbertze kostatzen zaio ekarri bezalaxe bere zaborra hartu eta kontrolatutako leku batean botatzea?

Zoritxarrez ez zait bertze irtenbiderik bururatzen eta dago-kionari (Urrotz zein Beintza-Labaiengo

udalak, Nafarroako Gobernua eta Ingu-rugiro Saila) luzatzen diot: Leurtzako sarrera ixtea edo mugatzea (beheko kru-zetik, adibidez) eta guarda zerbitzua paratzea urte osoan (ez udako tenporadan bakarrik). Halaxe, ingurua esplikatu eta behar duen errespe-toa eskatuz kartel batzuk paratzea ere (laguntzeko prest nago). Eta azkenik, karta hau irakurtzen duzuen orori kontzientziatze eta ardura pixkot izatea: guztion afera

da, guztiok disfruta-tzen dugulako.



Mikel Albisu
Beintza-Labaien

ELKARRI: ELKARRIZKETA ETA BAKEAREN ALDE

Elkarrik apirila-ren 23an Beran egin zuten aurkezpenaren ondoren zenbait lagun bildu ginen herri mailan funtzionatze-ko tailer bat sortuz. Ortzegunetan hama-bostero biltzen gara

Gure Txokoa elkar-tean, arratsaldeko 8,30etan. Interesa duzuen guziak hurbil zaitezke gure arte-ra. *Elkarri* elkarriz-keta eta akordioaren alde Euskal Herrian sortu den gizarte mugimendua da. Helburu hau lortze-ko, sinadura bilketa zabaldu da Euskal Herrian, eta Beran ere hileroko, horretarako; jarriko den mahaian sinadura emateko aukera izanen duzue.

Berako ELKARRI



OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

MANUEL MARTIN

Barnekalderako dekorazio dendak
Zerbitzu hauek eskeintzen dizkizue

- Era guztietako gortinak, kamilla bolanteak, edredoiak eta maindireak.
- Alfonbrak, bertakoak eta inportaziokoak Nepalekoak, Turkiakoak, Pertiakoak, Txinakoak...


Bertan eziten ditugu produktu guztiak

25 urtetako esperientzia

Bisita gaitzazu

Serapio Mugika 8
Tfnoa: 943-616603

IRUN



Pasajes 3
Tfnoa: 943-511598

ERRETERIA

SAROBÉ

okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

BORTZIRI

ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu.



Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

OHoko ikasleen pintura lanekin erakusketa egin zen

Ikasturtean zehar egindako 118 lan ikusgai egon ziren Kultur Etxean

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Ikasturtean zehar pintura ikastaroan parte hartu duten 46 ikaslek beraien lanak erakutsi zituzten Kultur Etxean. 12 eta 16 urte arteko artista hauek lan ederrak zintzilikatu zituzten, baina irakasleak azpimarratzen duenez, "datoarren urterako leku gehiago eskatuko diogu Herriko Etxeari, aurten estu xamar ibili bait gara".




Mikel Aranibar eta Markel Etxebeste benjaminetan, eta Iban Zubieta eta Mikel Zelaieta alebinetan Bidasoako Pilota Txapelketan irabazle suertatu ziren Irungo Urantzun jokatuako partiduan.

Ezkerraldeko argazkian Berako Armarría duzue, Berako Toki Ona Institutuko lehen eta bigarren mailako ikasleek egina. Roberto Rodriguez eta Ainhoa Larzabal irakasleen gidaritzapean, 200 ikasle aritu dira bi hilabetez, eta erreprodukzioa egiteko 600 pieza erabili dira, 4 x 3 metroko armarrizarra osatuz. Orain Institutuko gimnasioan badago ere, seguruenik Kultur Etxeko Bera paretan jarriko da apaingarri modura.

W ttipi-flash

- Fubol Zelaiak eta Polikiroldegiak** badute izendapen ofizialik: *Martzada Udal Futbol Zelaia* eta *Toki Ona Udal Polikiroldegia*.
- Elkarriren** sinadura paperak honako lekuotan utzi daitezke: Berako Estankoa, M^a Jesus Diaz, Mamen Aranibar-en dendan eta Igonen

BOAN TAILERRA



KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Herriko Etxeko Plaza - BERA

TXOKOA OSTATUA

- X Eguneko menua
- X Asteburutan, kaxuelak eta karta
- X Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
- X Pintxoan espezialduak
- X Gazte giroa

Tfnoa: 6.30286, Alzate • BERA



Legia 11 - 63 06 64 BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

LESAKA

Dantzariak, udala eta bandako zuzendaria konforme

Hiru aldeen arteko akordiora ailegatu ondoren, ez da arazorik espero Sanfermin egunean

AITOR AROZENA

Aurtengoan ez da seguraski problemarik izanen Sanfermin egunean, dantzariak, bandako zuzendaria eta udalaren arteko akordio idatzi batera ailegatu ondoren.

Goizez, "Napoleones" joko du bandak elizara joatean eta hemendik Eskol-ttiki bitarte. Eskol-ttikitik plazara eta plazan bertan berriz, herriko musikoen piezak dantzatuko dira. Arratsaldez, Herriko Etxetik elizarako bidean "Napoleones" adituko da eta bueltarakoan aldiz, Lesakako musikoen soinuak.

Gogoratuko duzuenaz, iazkoan polemika gogorra eta gorabehera aunitz izan zen herrian, dantzariak ez baitzuten Javier Igoak konposatutako "A Orillas del rio Onin" piezadantzatu nahi izan.



Maurizio Mitxelena 'Barraka', Luis Olaetxea 'Makukoborda', Josetxo Iantzi eta Dionisio Mujika 'Asteasu' bertsolariak omendu zituen *Beti Gazte* elkarteak bertso saio baten bitartez. Jendetza polita bildu zen frontoian

Atxaspi ostatuan kontzertu bikainak bestetako bezperan eta Sanfermin egunean

Programaz kanpo, zenbait ekitaldi izanen ditugu aurtengo Sanferminetan. Goiko ostatuak (Kilker, Sasaki, Atxaspi eta Ipar Haize, zehazki errateko) bi kontzertu bikain antolatu dituzte bezpera eta Sanfermin egunerako

Atxaspi ostatuan. Bezperan, *Mikel Markez* bakarlarria eta *Urtz* taldea izanen ditugu eta Sanfermin egunean *Lin Ton Taun* eta *EH Sukarra* taldeak. Kontzertuak gaueko 11'30ak aldera hasiko dira.

W ttipi-flash

- **Bortziritako** futbito txapelketaren finalak jokatuko dira ortziral honetan (hilak 2) Irain eskolako frontoian. Arratsaldeko 7etan emakumezkoen finala jokatuko da, 8etan, mutilen 3. eta 4. posturako partidua eta 9etan final nagusia.
- **Arrano** elkarteak zozketatutako Sanferminetarako bi lagunendako egonaldia eta otorduak eta 25.000 pezetako saria Irungo Pepita Astigarra-gari tokatu zaio.
- **Baikorrak** peñako bazkarira joateko hilaren 4a baino lehen jaso beharko dira txartelak Atxaspi eta Koskilla ostatuetan 2.000 pezetan truk.
- **Everest** mendiari buruzko hitzaldia eman zuten Xabier Erro eta Pitxi Egileorrek Kasinon.

SAN FERMIN ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

ARITZA
MENDI LANAK

- Plantazioak
- Mendi garbiketak
- Kimatzeak
- Zerrakurak...

Presupuestoak konpromisorik gabe

☎ 634008 eta 627608

Plumenborda baserria-ARANTZA

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

Deñe

LENTZERIA • MERTZERIA

Tfnoa: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

'Altxata 2. Gasna Lehiaketara' 29 gasna aurkeztu ziren

Gasna gehienak Bortzirietakoak izan arren, sariak Baztan eta Sunbilla aldera

PELLO eta JON

Ekarritako 29 gasneta-tik 14 Bortzirietakoak, 8 Malerrekakoak, 6 Baztan-goak eta 1 Leitzakoa. Irabazlea Amaiurko SAT izan zen, trofeoa eta 20.000 pezeta eramanez. Bigarrena ere Amaiurrera joan zen, 15.000 pezeta eta trofeoa herri horretako Felisa Irungaraik jaso bait zituen. Hirugarrena, berriz, trofeo eta 10.000 pezetarekin, Sunbillako Lizun-entza. Isidro Ariztegi etxalartarrari 8.000 pezeta eta trofeoa eman zitzaizkion, herriko gasna onenaren izenean. Ondotik egindako gasna sarituen enkante edo subastan, lehenbizikoa eta



Kaxtora Agestari omenaldia eskeini zion Altxata Elkarteak. Bere 80 urte bizkarrean dituela herriz herri dabil azken urteotan haria eta zanpinak nola egiten ziren erakutsiz. Segi dezala aunitz urtez.

hirugarrena Lesakako Bereau jatetxeak bereganatu zituen, 5.000 eta 2.000 pezetan.

Ipuin Lehiaketako...

sariak Haurren Egunean, ekainaren 20an banatu ziren. Estitxu Etxarte eta Edurne Elizagoien, 7. mailakoak; Mikel Goienetxe eta Asier Maia, 6. koak; Laura Elizagoien, 4. mailakoa; Garbine Maia, 3. mailakoa; Joseba Danboriena, 2. mailakoa eta Leire Goienetxe, 1. ko mailakoa, aurtengo sarituak.



Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

BORTZIRI
ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu.

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

TRAFFIC

**GIZONEZKOEN
MODA**

**muñeca
de trapo**

**EMAKUMEZKOEN
MODA**

BIAK, IRUNgo LUIS MARIANON

IGANTZI

San Juan Xarren jendetza polita bildu zen

Nafarroako gobernuko Nekazal turismo programan herriko bi etxe sartu dira

OSKAR TXOPERENA

San Juan eguna aste tartean izan arren jendetza ederra bildu zen San Juan Xarren, Arantzako eta Igantziko jendea gehien bat. Bertze egunetan ez bezala, eguraldiak ere lagundu egin zuen. Hurrengoan aipatuko dugu egun horretan egin zen zaharren besta.

Nekazal turismoa

Bi etxe dira aurten Nafarroako gobernuko turismo programan sartutakoak. Aurtengo udarako ezin hobekiago agertzen omen zaizkie gauza. Biak ia ia beterik baitaude garai horretarako.



Pala txapelketa ere martxan dugu 12 bikote jokatzeko lehenbiziko mailan eta bigarrenaren berriz 6. Zoritxarrez ezin izan da emakumezkoena antolatu, lau neska bakarrik apuntatu baitziren.



Ederki gelditzen ari da parrokiako zentroa Martxelino eta Angel egiten ari diren lanarekin. Paretak moldatuz aparte, komuna berria ere egiten ari dira

Firma bilketa

Elkarriko firma bilketarako paperak banatu ziren azkeneko *ttipi-ttapan*. Bete nahi izanez gero be-

hintzat etxean eduki, norbait pasatuko bait zaizue eske. Saiatu behar da paperak osorik betetzen, horretarako bi famili behar ba-

dira ere.

□ **Hemendik** aintzinerara eta uda osorako larunbat arratsaldetan ez da inor egonen udaletxean.

B RADIO BIDASOA

**UZTAILA - ABUZTURAKO
PROMOZIOA**

Z O Z K E T A

- * FRUITUAK URTZEKO MAKINAK
- * ILEAK KENTZEKO MAKINAK
- * MIKROUHIN LABEAK
- * IZOZKIAK EGITEKO MAKINAK
- ...ETA AUNITZ GEHIAGO

- 5.000 pezeteroko erosketetan, zozketarako zenbaki bat emanen dizugu.
- Uztailan eta abuztuan zozketa bana egingen dira.

Eztegara Pasealekua 14 • BERA • © 630377

MOLINERO
PINTURAK



Etxe barneko hezetasan eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA

Jubilatuena gimnasia ikastaroa bukatu da

Hogei pertsona inguruk parte hartu dute sei hilabete hauetan

MIRARI eta MARTA

Jubilatuentzat antolatutako gimnasia ikastaroak lehengo egunean bukatu ziren. Despedida gisa lehendabizi azkeneko gimnasia klasea eman zuten eta ondoren, bazkaria izan zuten Zahar Txokoan.

Sei hilabetez egon dira hogei bat pertsona astero-ordu t'erdiko saioa eginez. Aipatu digutenez, gustora egon omen dira, eta uda pasatuta iraila aldera berriaz hasteko asmoak omen dituzte gainera.

Sinadura bilketa

Maiatzaren lehen hasi zen Elkarri taldearen kanpaina, *ttipi-ttapan* azken alean ateraz orrian



Urte erdian hainbat izerdi ateri ondoren, ongi merezia zuten jubilatuak despedida gisara egin zuten bazkaria

OSKAR Arg.

sinadura bilketa egin behar dute. Orria 8 lagunek berriz gomendatzen da, gero bai Javier eta Bortzak Bat kooperatibetan, bai

Gartxinea eta Osiña dendetan, edo bertzelaz Luzia Iparragirre edo Martin Ibarrolan bankoan entregatu behar dira.

Seinaleak ez dira errespetatzen

Herriko Etxeak jarritako seinaleak ez dira errespetatzen. Goiko karrikan aparkatu ezin den tokian aunitan ikusten ditugu kotxeak, Gartxinetik Bolineakoa gehienetan itxia egoten da, baita Kalkoetxetik eskolakoa ere. Jendeak seinaleak errespetatu ditzala eskatzen da, gainerantzekoan multak paratzen hasiko omen dira.

□ **Ekaitza** mendian bagadi bat itxi dute arbolak haunditu ditezten. Hala ere, iturriak zerrakuratik kanpora gelditu dira, aziendak ura edan dezaten.

CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA

Ahate-foi
Gibel-gizena
Urdai azpikoa
Ahate-hegalak
Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07
BERA

SUNBILLA

Hiru bedeinkazio eman zitzaizkion saihesbideari

Ekainaren 23an estreinatu zen

IXABEL eta JOSUNE

Ekainaren 23ko eguerdian zabaldu zen trafikora Sunbillako saihesbide berria eta bertan izan ziren Juan Cruz Alli lehendakaria, Miguel Sanz lehendakariordea eta Lopez Borderias kontseilaria, inguruko zenbait ordezkariekin batera.

Guztira, 1.163 milioi pezetako gastua izan du lan honek eta 7 metro zabalerako kaltzada izanen du karreterak. Tunela berriz, Nafarroako luzeena omen da 530 metrokin eta 12 metroko zabalera du.

Aipagarria da errepide honek ohizko segurtasun neurriez gain, hiru be-



Sunbillako saihesbidearen inaugurazioan, Nafarroako gobernuko hainbat ordezkari izan ziren. Hemendik aintzineraz lasaitasun ederra sumatuko da herrian

KARMELE Arg.



deinkazio jaso zituela apezaren eskutik eta bideak zaintzen dituzten santu eta amabirjinen irudiak ere paratu direla.

Ez dago beldurrik!!

II. Mendi bizikleta ibiladian Berako Jose Mari Zelaieta garaile

Berako Jose Mari Zelaietak irabazi zuen Sunbillako II. Mendi bizikleta ibilaldia 73 partaideren

artean. Herriko partaideen artean Santi Arretxea izan zen lehena, j.B. Ibarra bigarren eta Mikel Ibarra 3.



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



GAZTANDEGIA Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda Tfnoa: 45 08 62 SUNBILLA

IRAGARKI HAU 5.500 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITATERAKO ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

ZURE OSASUNA ETA EDERTASUNAREN ZERBITZURA

Osasun fisikoa eta sikikoa tratamendu naturalekin


•••

Bizkarrezurreko arazoak

•••

Zelulitisa eta loditasunaren kontrako tratamendua

•••



Jean Paul Bouchet Dokorea

Inzakardi 3 - 1. A eta B • 45 16 42 • DONEZTEBE



Komuniotako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40 ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak ORDU BATEZ ERREBELATUAK ditugu

Galtzadaren antolatze lanak aintzinera

Gazte bihurrien erreinsertzioan ari den elkarte bat ari da eginbehar horretan

MIXEL ETA JACQUELINE

Galtzada, Erdi aroko bidexka bat da: Konpostelako bide zahar bat, Eltsospean hasi Elizondoan barna eta herria iparraldetik hegoalderat gurutzatuz Bera alde badoa, Lehetxipian pasatu eta Xarbo Erreka eta Lehenbizkaiko auzoetan barna segitzen duena.

Lekuaren gainean erreka eta labakitzeko lurretan aurkitu harri xabal eta paretak harriz egina da. Ainitz guneetan ez da baliatzen eta ez da gehiago baliagarri ere.

Herriko etxeak erabaki du bide hori antolatzea oraino erabilia den lekuekin, bereziki plazatik Xarbo errekarat doan zatia, 400 bat metretan. Egiatzko erromes lantegi bat da: Lanak martxoaren lehenetan hasi ziren eta sei edo zortzi hilabetez iraganen

dira. Egitekoa den lana da, dena urratu eta ura kurriarazteko sistema baten ezartzea eta kanalizazio zaharren ordaintzea. Ondotik bidea lehen bezala, harriz harri egin beharko da, falta diren harriak erreketan bilduz.

Erran gabe doa lehen ondorioak izigarri ederrak direla eta atzoko gizartearen lekukotasunik hobere-na dugula.



Sarako ikastolako umeak Bidarraiko amorrintegian

Ikastolako neska-mutikoak Bidarraien

MIREN

Ikastoletan, bertze edozein eskoletan bezala, ekaina ateraldien garaia izan ohi da. Ikastolako ikasleek, ohiturari hasiera eman berri diote.

Nahiz eta denborak ez dituen ainitz lagundu, hiru egun zoragarri iragan di-

tuzte Bidarraien, "Añamendi" mendizaleen egoitzan.

Elgarbizitzen ikasteaz aparte, ingurugiroa apur bat ezagutzeko parada ere izan dute: Bidarraiko mazelak eta nolaz ez; amorrintegi famatua. Donibane Garazin ere izan dira, Baiona eta Garazi arteko

bidaia egiten duen eta desagertzeko zorian omen dagoen tren paregabea.

Hainbertze irri, jolas eta euri zaparrada... seguruz luzaz gogoratuko direla.

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, ederki pasatu zuten goikaldeko argazkian ikus daitezkeen.



TELLETXEA
MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten dtugu. Fabrikanteak gara.
- Haritz, gereziendo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- Ordaintzeko errextasunak eta zure erosketengatik opari ona eramanen duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

DONEZTEBE

18 bikotek parte hartu zuten herriko paleta txapelketan

Pierola eta Pernaute izan ziren txapeldunak lehen mailan

TXEMA ALDABE

Hemezortzi bikotek parte hartu dute aurtengo Doneztebeko paleta txapelketan.

Lehenbiziko fasean hamabi bikote klasifikatu ziren eta bertze seiak bigarren mailako txapelketa jokatu zuten.

Bigarren fasean hirukotez osatutako lau talde izan ziren, talde bakoitzean lehen erdifinaletarako klasifikatu zelarik. Lehen mailako txapeldunak Pierola eta Pernaute izan ziren, finalean Agirre eta Ansori irabazi ondoren. Hirugarrenak Estanga eta Lacosta izan ziren eta lauugarrenak Maritxalar eta



DYAk antolatutako sokorrismo ikastaroak uztailaren 15a arte iraunen du, hau da hilabete bat, egunean 2 orduz. Klaseak bertako medikuek ematen dituzte Doneztebeko Osasun Zentroan eta hamabiren bat lagun daude bertan



Erramun Martikorena izan zen eskolan goi-zikloko haurrekin. Ez da erran beharrik bere ahots eta kantekin gozatu zutela

Ibarra. Bigarren mailako txapeldunak Belarra eta Andueza izan ziren eta txapeldunordeak Goñi eta

Baleztena.

☐ **Internatzeko** moduan zaude lemapean udako ikastaroak izanen

dira eskaltegian. EGA ikastaroa ere egingen da abuztuan. Informazioa 451555 telefonoan.

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezti 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

MariCruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

CRISTALERIA VELATE

- Kristaleria orokorrean •
- Barnekaldeen dekorazioa •
- Bainurako mogleak eta manparak •
 - Pareta ispiluak •
 - Bidriera artistikoak •

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe


Villaba Etorbidea 12 - IRUÑEA ☎ 132021
Merkatarien karrika 5 - DONEZTEBE ☎ 450991
Pedro Axular 1 - ELIZONDO ☎ 580825

NATUR ETA ESKU TERAPIA

QUIROPRÁKTIKA

Sendatzeko modu naturala da. Interesatzen bazaizu deitu telefono bontara:

☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**

Eskolako neska mutikoak Xorroxin irratitik

Komunaletan bazkalekuak hobetzeko, bertzalde, 9 milioi hartuko dira Diputaziotik

IBAN ISASI

Ekainaren hasieran Xorroxin Irratiak Iturengo eskoletan jarritako emisoran eskolako neska mutilak egon ziren era guzietako ekintzak eta saioak egiten: lehiaketak, elkarrizketak, berriak... Kurtso akabera ospatzeko ere eskolakoek besta polita izan zuten, txistua, pailazoak etabar eduki zituztela.

Nafarroako gobernuak bazkalekuak hobetzeko emandako dirulaguntzarekin izanen al dute ardi hauek zer jan



Bazkalekuak hobetzeko dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak onartu du 49,9 milioi pezetako inbertsio egitea lur komunaletako bazkalekuetan. Dirutza horretatik Itureni 9 milioi pezetak dagozkie.

ZUBIETA

San Juanak, urez blai!

JUAINAS

San Juan bezpera. Euriaz leher! Aurten ere Baztango San Primok berea egin digu, ekaina apirilaz eraldatuz. Ospatzerik izanen dugu? martxan honetan...

Ospakizuna galtzea penagarria baliteke ere, makurragoa da, dudarik gabe, ernia edo etena sen-

datzeko esperoan zeudentzat, garai bateko ohitura zaharren euslerik baldin badago. Bai ote.

Pertsonen kasuan ez dakit, itxuraz gero eta gehiago dagoela esan daiteke, erdi galduak zeuden ungentu eta sendabelarren erabilpena ugaritu dela nabarmen nabari da.

Eta azindetan? Aspal-diko metodoa dena frogatzen ari gara: behien errapeko karitxeak desagerta-



Gauzak diren bezala! behi horiek zubietarrak izanda ere ez dute karetxarik

ARTXIBOA

razteko apo bat lata batean sartu eta, hiltzen denean

behia sendatua. Hurrengorako emaitzak emanen!!

IRAGARKI HAU 5.500 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZALABAIEN

GOIZUETA

Kika, Koko eta Moko pailasoen emanaldia larunbatean

Pello Añorga ipuin kontalaria ere etorriko da uztailaren 17an

ESTEBAN AROZENA

Heldu den larunbatean, hilak 3, 'Arte eta Kultura' kanpainaren barrenean haurrei zuzendutako ekitaldi bat burutuko da: Kika, Koko eta Moko pailasok eskeiniko dutena. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, herriko plazan aktuatuko dute ilunabarreko 8etan hasita.

Nafarroako Gobernua, Udala eta Umore Onaren artean antolatutako kanpainan honen hurrengo ikuskitzunean ere haurrak izanen dira protagonistak, Pello Añorga ipuin kontalaria egongo baita gure artean uztailaren 17an.



Rosa Mari Olaizolak eta Izaskun Bakerok lortu dute garaipena emakumeen paleta txapelketaren aurtengo edizioan

Juez eta idazkari berak segituko dute

Bere garaian ireki zen epean inor berririk aurkeztu ez zenez, bake epailea eta bere idazkaria hautatze-

rakoan ez zuen udalak zailtasun gehiegirik izan. Beraz, Jesus Etxegiak segituko du herriko juezaren postuan eta Juanita San Miguelek beteko ditu idazkari lanak.

Igeriketa ikastaroa

Azken urte hauetako ohiturari jarraipena emanez, uztaila osorako igeriketa ikastaro bat antolatu du Guraso Elkarteak eskolako haurrentzat. Iaz bezala, Hernaniko pisinetara joango dira izena ematen dutenak.

□ Eskola aipatu dugunez esan, zortzigarren mailakoek zozketatutako mendi bizikleta 082 zenbakia iri suertatu zaiola.

□ Ordiziako Jakintza ikastolak antolatutako duen "Kilometroak"-en aurtengo edizioak 20.000 pezetako dirulaguntza jasoko du gure herriko udaletxetik.

ARESO

'Leader' planari buruzko informazio osoa Udaletxean

JUANA MARI SAIZAR

Nafarroan elkarte bat dago Cederna-Garalur izeneko. Dirulaguntzak eta bestelako laguntzak ere eskeintzen ditu nahi duen guztiarentzat, lantokiak irekitzeko edo bakoitza bere negozio propioa aurrera ateratzeko. Askok izan daitezke hemen sartzen ahal diren proiektuak, baina gure herriari begiratu, hauek izango lirake garrantzitsuenak: turismo etxeak, gazta eta

banabar gorriaren produktioa eta denbora libre (paseorako zaldiak, mendi bizikletak...).

Katekesi Eguna

Ekainaren 5ean ospatu zen Lekunberrin Katekesi Eguna eta Aresoko 20 bat umek parte hartu zuten. Bere aurkezpena oso ongi prestatu eraman zuten, arrakasta handia izan zuten eta txalo fuerte bat jaso zuten bere irudimenarengatik.

□ Udalak bat egin du



Aresoko 20 umek parte hartu zuten Lekunberriko Katekesi egunean

Bortziriak, Malerreka, Baztan eta Leitzaldeko udale-

kin eskualdeko kirol zonaldean parte hartuko.

776.800.972 pezetakoa izango da aurtengo udal aurrekontua

JOSEBA AZPIROZ

Udalak 1993 urterako aurrekontu orokor bakarra onestu zuen aho batez. Bere zenbatekoa 776.800.972 pezetakoa da. Aurrekontuaren proiektua onartu baino lehen, honako partida berri hauek sartu zituzten: larreen hobekuntza, parkeak egitea, erraldoiak erostea, aparkalekua egitea eta gasa banatzeko sarea egitea.

Langileak

kontratatu dira

INEMek onartu du Udalak egindako eskaera eta 2.600.000 pezeta emango ditu langile batzuk kontratatzeko. Langileak obra hauetan ariko dira lanean: erreka eta mendien garbiketa, Leitzelarreko kamioko urbideen garbiketa, Uztarlekuko eta Santa Kruzko iturrien moldaketa, Amazabaleko itu-



Lehenbiziko rally fotografikoaren partaide eta antolatzaile batzuk

ria berritzea, Aritzko leize zuloen ingurua itxi eta seinaleztatzea eta kanposantuko beheko aldera jeisteko eskailerak egitea.

Batzarreak...

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko estatuak onartu ditu. Horien arabera, Leitzako udalak, bai bere barne funtzionamenduan, bai herritarrekiko edota erakunde guztiekiko

harremanetan, euskara erabiliko du. Horretarako eta prozedura normaltasunez eta gradualki egitea lortzeko, bost urteko epea ezarri du.

□ 27 dira dagoeneko udalak onartu dituen ondasun komunalen (irastorleku, lizardi...) hitzarmenak. Lur hauetatik %23a gelditzen da partikularrentzat eta 77a udalarentzat. Gogoratu epea aurreratu bukatzen dela.

ttipi-flash

- **Kontseilu** eskolarrean, Maria Jesus Zabaleta Zabaleta izendatu zuten eskolako zuzendari berria, Florencio Irurtiaren ordeztu.
- **Kultur taldeak** antolatuta, uztaren 4ean, arratsaldeko 7'30etan, Plazan, Aurrerako dantzariak dantza saio berezi bat eskeinituko digute ("Soka dantza", "El ciego", "Ez-pata dantza" eta "Otxagabia").
- **Uztaren Iean** Aurrera, Kultur taldea eta baserri auzo desberdinetako ordezkariak elkartzeko dira, aurreratu ospatuko den Baserriaren eguneko egitaraua prestatzeko.
- **Euskal Herriko** Bertsolarien Elkartearen eskeintza ikusita, urriaren 31an, arratsaldeko bostetan, "Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 93"ko azken laurdenetako saioa bat egitea onartu zuten udalak azken batzarrean.

SAGASTI Jatetxea

Bokadilo goxoak eta paregabeko bazkariak
Tfnoa: 610637 - LEITZA

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA

Lorea eta Idoloa

ileapaindegia

Tfnoa: 610907 - LEITZA



- ✗ Eraiketakoko materialak
- ✗ Zeramikak eta bainuak
- ✗ PVCzko leihoak

Aurrekontuak egiten dira

Tfnoa: 504410 - LEKUNBERRI

MANGADO Y OCHOaren Banatzailea

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

5.500 harpidedun

18.500 irakurle*

* Nafarroako Gobernuak egindako Audentzia Estudioaren datuak

BAZTAN

Merkatuzelaiko camping-a debalde egitearen truke, Udalak Frantziskanoen lurren jabetza-eskubidea permutatuko luke

ELIZONDO

EA, HB eta PSOeren aldeko botuekin eta UBren kontrakoekin, udalak enpresa inmobiliariari lehiaketa publikora deitzea onartu berri du. Zentzu horretan, Camping-egitearen truke udalak Frantziskanoen lurren gain duen jabetza eta aprobetxamendu eskubidea permutatuko luke eskaintza hobe aurkezten duenarekin.

Alde botatu zutenen iriziz, honek Baztanera turismoa ekartzeko balioko du. UBkoek aldiz, ez dute bideragarria ikusten camping-arena, ez baita ez proiektu ez estudio seriorik egin horretaz.

«Iturri Ederra»ren batzarra

Remigio Lizasoain izanena da «Iturri Ederra» elkarteko lehendakari berria, azken asanbladan hartutako erabakiaren arabera. Batzar berean, aurtengo aurrekontua onartu zen (12.775.000 pezeta gastuei dagokienez eta 10.347.000 pezeta diru sarreretan). Hemendik aintzina ur metro kubiko bakoitzak 20 pezeta balioko du, lehen baino bi gehiago.



Iruritan Aranabia I. paleta txapelketako finalistak: 1. mailan Larralde - Pierola (Urdazubi eta Almandoz) txapeldun eta Jaime-Bittor (Doneztebe eta Oitz) bigarren. 2. mailan Karrikaburu-Karrikaburu (Arizkun) txapeldun eta Telletxea-Telletxea (Igantzi eta Lesaka) bigarren.

ttipi-flash

- Elizondoko kanposanturako bidea zabaltzeko proiektua egitea eskatuz udalbatzak Diputazioari. Horrela, behin proiektua egin dagoela, Baztango udalak hasiera ematen ahal izanen baitio afektaturiko lurren jabeekin egin beharreko hartuemanei.
- Gaztanberaren Kofradia antolatze asmoarekin, txarla bat eman zen Arizkunenean ekainaren 25ean.

San Ferminak, Azpilkuetan ere

Asteazkena 7, besten hasmenta, luntx eta soinua. Dantzaldia Modestorekin.

Ortzegunean mus txapelketa. 4,30etan pilota txapelketako semifinalak. Arratsalde eta gauez dantza Joxe Angelekin. Goizeko 5etan xolomo jatea.

Ortzilerian, 2etan zikirojatea Joxe Lizaso eta Joxe Agirre bertsolariekin. Gauez eguerdiko sobrate jatea eta dantzaldia Joxe Angelekin. **Larunbatean**, haur jostaketak. Herri baz-



Herriarte elkartean baztan zopa jatea izanen dute gaueko 10etan

karia. Txokolatada herriko haurrentzat. Dantza Anker taldearekin. Goizeko 6etan ziztor eta zinger jatea.

Igandean, letan Anker. Pilota txapelketaren finala eta berendua. Dantzaldia (Anker) eta "Pobre de mi"

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Udako arropak • indiar estilokoak
moda-modako bainu jantziak • Bitxiak

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

Kanpotar aunitz espero da uda honetan

Nekazal giroko turismoa goiti doaie poliki poliki

PABLO MENDIBURU

Baseri etheen bitartez kanpotar jendeak herri tiki-tietan oporrak pasatzeko aukera dago. Baztan-Bidasoa aldean iaz 52 etxe zeuden prestaturik (aurten gehiago). Basaburuan oraindik guti dira animatu direnak: Zigan bi etxe osorik (Arotzenekoborda eta Indartetipia) alkilatzen dira eta Etxezurian bortz logela. Anizen berriz, Jauregia etxea dago. Normalean uda partean, denan betetzen dira. Aipatu behar da gainera, txoko hauetara jende aunitz etortzen dela, Ziga gida turistiko aunitz agertzen baita.



Ziga, hainbat turismo gidetan agertzen den herria da ARTXIBOA

Ikasturtea akitu da

Umeak eskola akitu zuten joan den astean. Gero eta ume gutiago daude herriko eskoletan. Aniz eta Berroetako eskolak itxi zituzten haurren faltan.

Belateko tuneleko lanak hastekotan daude. 2.872 milioiko aurrekontua du. Nafarroatik Frantziarako bidea eta inguruko ekonomia hobetzea omen da helburua.

W ttipi-flash

- **Bi zigatar**, aspaldi ez bezala, ezkonduko dira uz-tailan. Pello Aldabe 3an eta Pilar Sarratea 17an. Zorionak.
- **Amaiur Gasnategikoek** irabazi zuten Etxalarko 2. gasna lehiaketaren lehen saria (20.000 pezeta eta trofeoa) eta bigarren saria, berriz, Amaiurko **Mendialdeko Felisa Irungarairantz** izan zen (15.000 pezeta eta trofeoa baita).
- **Zigako** bidegurutzean ispilu bat jartzeko eskatu dio udalak Diputazioari Bide Zerbitzuari.

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



M^{re} Dolores Mirana **TOPOGRAFIA**

NEURKETAK • PLANOAK

Lur neurketak
Luberriak



Plantazioak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO

Iskizari jateak

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

ARLA

ARDOTEGIA

Ardo botilatua
eta botilatu gabea

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

Beatriz Apaindegia

Espezializatutako zentru akreditatua

Larruazalaren garbiketa, aurpegi eta gorputz tratamenduak, depilazioak, masaiak, sauna eta solarium.

Zatoz eta "Importancia de tu imagen" liburua oparituko dizugu

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO



FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

URDAZUBI

Lezeetako gidariak kontratatu ditu Udalak

ALIZIA OLAIZOLA

Lezeetan gidari lanak betetzeko Ana Isabel Juarena eta Irene Elrio sei hilabetetarako kontratatu ditu Udalak. Doneztebeko enplegu bulegotik errandakoaren arabera hauek izan ziren probatan puntu gehien lortu zituztenak. Lezeetarako bidearen moldaketa lanak berriz, Erratzuko Basilio Almandozek eginen ditu 25 milioi ingurutan.

□ **Jantzigintza** ikastaroa ekainaren 17an bukatu zen eta ospatzeko Anastasi Biddart irakaslea eta bere 20 ikasleak Bilbon izan ziren telak saltzen dituzten leku bat bisitatzen.

□ **Ekainaren 20an**, igandea, Ana Mitxelena Iri-

goien haurraren bataioa izan zen, urteko lehena.

□ **Ekainaren 24ean** eman zioten bukaera kurtsuari, Urdazubi eta Zugarramurdiko eskolan, besta bat eginez, azkeneko urtean egiten duten modura.

□ **DYAk** 10.000 pezetako dirulaguntza jaso du.



Matxinbordako Maritxu pozik kaja sorpresarekin, zenbaki saritua erakutsiz



Aurten lehen jaunartzea hartu duten neska-mutikoak, Justino apezarekin batera



«ZALDUBI»
SUKALDE
MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 58 05 62
IRURITA - BAZTAN

OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

5.000 lagun inguru bildu ziren gaupasan

Aurten egindako aldaketak ongi suertatu dire

KORO ETA MARGARI

Zugarramurditik berri gutti, besta eta "bestondotik" aparte. Gaupasaz ari gara, eta erran behar da urtetik urtera arrakasta gehiago duela eta, onera edo tzarrerakoz, jende gehiago etortzen dela (aurten 5.000 lagun guti goiti behiti).

Giroaezin hobeagoa izan zen, bai lezeetan eta baita herrian ere. Musikak goizeko zazpiak arte iraun zuen baina 8'30etan oraindik bazegoen jendea leze barnean; herrian berriz, goizeko 9'30etan plaza jendez pilpilean zegoen.

Aurten aldaketa batzuk egin dire eta ongi suertatu dire: plazan bertze ostatu bat

Urtetik urtera jende gehiago biltzen du Zugarramurdiko gaupasak. Ongi ateratzeko, jakina, herritar guztien laguntza eskergarria da
ARTXIBOA



paratu; dantzaldirako sarreak lezeetako atean paratu beharrean eskoletako plazan paratu ziren; eta azkenik antzerkia ere aldatu zen soi-

nu eta ikusgarritasun alde-tik hobetuz eta jendea partehartzera bultzatuz.

Herritarrei eskertu behar zaie beren laguntza guztia

eman zutelako z gauean berrean eta baita ere biharamunean (Behitiko karrika goizeko 10etarako bizilagunen artean garbitua izan zen).

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA © 630735 • IRUN © (943) 622305



MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR Tfnoa: 45 30 60



Galarza

JATETXEA

Tfnoa.: 580101

Santiago 1

ELIZONDO

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245

ORONOTZ-MUGAIRI

ANGEL TRANTXE ELEKTRIZISTA

- Instalazioak, berrikuntzak eta moldaketak
- Suteen detekzioa
- Su-hitzalgailuak edo extintoreak

Giltxaurdi 16 - 1. ezk. © 452246 - ELIZONDO

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak Eska itzazu aurrekontuak Juana M. Urrutia

EZKONTZAK

Ignacio Larrea Imaz eta **M^a Teresa Lekuberria Ariztegi**, Donostia eta Lesakakoa, ekainaren 19an.

Juan Carlos Oteiza Ugarte eta **Ana M^a Irigoien Etxegoien**, Oronoz eta Elizondokoa, ekainaren 12an.

Jesus M^a Ariztegi Etxepeteleku eta **M^a Josefa Barrenetxe Lertxundi**, Ituren eta Lekarozkoa, ekainaren 18an.

Ignacio Aginaga Goikoetxea eta **M^a Concepción Etxamendi Lazaro**, Altsasua eta Elizondokoa, ekainaren 19an.

Juan Miguel Sorozabal Arretxea eta **Aranzazu Ansalas Ariztegi**, Beran, ekainaren 12an.

Abelino Mitxeo Iriarte eta **Mertxe Zozaia Ariztegi**, Almandoz eta Doneztebekoa, ekainaren 5ean.

JAIOTZAK

Laura Mendibil Petirena, Sunbillakoa, maiatzaren 30ean.

Andoni Barrenetxe Etxenike, Berroetakoa, ekainaren 8an.

Julen Jaurena Petirena, Elizondokoa, ekainaren 9an.

Iratxe Mendikoa Etxenike, Iruritakoa, ekainaren 8an.

Josune Alustiza Tolosa, Are-sokoa, ekainaren 12an.

Aitor Garmendia Iparragirre, Berakoa, ekainaren 11an.

Kevin Fliker, Sarakoa, ekainaren 16an.

Andoni San Martin Zinkunegi, Doneztebekoa, maiatzaren 26an.

HERIOTZAK

Juan Esteban Maisterrena Garin, Lekarozen, ekainaren 19an, 87 urte.

Fernand Peyregne, Saran, ekainaren 12an, 72 urte.

Fulgencio Sarratea Landa, Legasan, ekainaren 19an, 80 urte.



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

SOULE

*Gurutze eta
bilarriak*

☎ 45 30 38 ARIZKUN
☎ 12 35 72 IRUÑA

BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

• TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

Sokatira: Nafarroako Txapelketa

Amaiur txapeldun 600 kilotan



Amaiurtarrak errex gailendu ziren finalerdi eta finaleko tiraldietan

KARMELE

Amaiur A taldeak eskuratu zuen Nafarroako sokatira txapelketa 600 kilotik behitiko kategorian Lesakan ekainaren 20an egindako

finalean. Bere gibeletik, Sunbilla, Lesaka, Basaburua, Amaiur B eta Berriozar gelditu ziren.

Semifinalean, Amaiu-

rrekerrex irabazi zion Basaburuari, baina Sunbillak ederki sufritu behar izan zuen lesakarrak kanporatzeko. Azken tiraldietan

Laxoa txapelketa

Hilaren 11an jokatu da finala Iruritan

Uztailaren 11an jokatu da Iruritako plazan Baztan-Errekako laxoa txapelketaren hamalagarren edizioaren finala.

Erdifinalak joan den asteburuan eta igande honetan joaktu beharrak dira. Alde batetik Oitz eta Arraiozko taldeak eta bertzetik, iazko bi finalistak, Doneztebe eta Irurita. Igandean, Oitzen eguerdiko 12etan eta Iruritan arratsaldeko 5etan jokatu beharko dute finalerako txartelaren bila.

berriz, Amaiurrek errex gaintitu zuen Sunbilla, agian hauek semifinaletako nekea gehiago nabaritu zutelako.

ZALAIN MOTOR

• FORD ZERBITZU OFIZIALA •



Mekanika • Karrozeria • Elektrizitatea

Zalain auzoa, © 631157 BERA

Jose Ramon Insausti eta Maika Ariztegi Doneztebeko Herri Crossean txapeldun

Tolosako Jose Ramon Insausti gizonezkoetan eta Iturengo Maika Ariztegi emakumezkoetan izan ziren Donezteben Herri Crosseko txapeldunak. Mutiletan bigarrena Lesakako Jesus M^a Calvo izan zen eta nesketan Rosa Orofino Doneztebeko lehen korrikalaria Xanti San Miguel izan zen, sailkapen orokorrean seigarren ailegatu baitzen. Erreka taldeko lehen berriz, Jose M^a

Anzizar izan zen (orokorrean 27.).

Jubeniletan Doneztebeko Jorge Orbegoza izan zen lehena Xixo Larrazaren aintzinetik eta nesketan Ezkurrako Itziar Iparragire nagusitu zen.

Beteranoen mailan, Manuel Moyano eta Juana Usabarrena izan ziren garaile.

Herriko komertzioetan bildutako sariak banatu ziren ondoren.

Ezkontza: eliz-ohitura baino zerbait gehiago

Ospakizunetan aparteko garrantzia dute jantzi, bankete eta opariek



Ezkontzaren inguruan elementu berriak sartu badira ere, ezkontzen diren ia-ia guztiak elizaz ezkontzen dira herriotan.

Udaldea ailegatzean, ezkontza ospakizunak ugaltu egiten dira nabarmenki inguru honetan. Tradizioak inoiz baino sutuago segitzen du aintzinerat.

Halere, ezkontza ospatzeko erosten diren jantziak, egiten den banketea eta erregaloak, gertakari hau kontsumoarekin lotzen dute estu-estu.

Tradizio handia izaten segitzen dute gure gizartean ezkontzek. Gaur egun, halere, kontsumoaren munduak irentsi egin du garai bateko eliz ohitura, ezaugarri eta dimentsio berriez hornituz bidenabar.

Zibilez ezkontzen direnen kopurua jakin asmoz Leitzako Bake Epaitegira deitu dugu, eta bertan esan digutenez, «oso-oso gutxi dira herriotan zibilez ezkontzen

direnak. Azkenekoak adibidez, ez ziren Leitzakoak. Halere, tramitazio batzuk egiten dira noizean behin». Alde horretatik baita, tradizioari eutsi, eusten zaio. Dena dela lehen bezala gaur egun ere ezkontzak, bataio eta jaunartzen moduan, sakramentua izateaz gain gizarte mailako gertakariak dira.

Dena ez da sakramentua

Ezkontza egunean hainbatetan buruhauste dexentea

ekartzen duen afera banke-tearena da.

Almandozko Beola Jattetxeko M^a Josek kontatu digunez, «apirilatik aintzinerat larunbatero izaten da lana. Eskaera gehienak, halere, maiatza eta irailan izaten dire, eta hilabete horietan nahi izanez gero, gutienez urte bat lehenagotik eskatu behar da erreserba». Gonbidatu kopuruz ere galdetu diogu, eta «banaz bertze 160 ingurukoa izaten da normalena». Dena

den, ttikiena 30 lagunekoa izan omen dute eta haundiena berriz, 250 gonbidaturekin. Menuari dagokionez, berriz, «urte hasieran 5 menu prestatzen dira eta menu horien prezioak (3.800 - 5.500 pezeta artekoak) urte osoan mantentzen dira. Jendeak normalean menu-rik garestiena aukeratzen du» dio M^a Josek.

Gastu ugaridun ospakizuna

Gastuei erreparatuz, eta jatetxearena alde batera utzirik, ezkonberriek egun horretan jantziko dituzten arropak eta berauen osagarriak ditugu lehenik; emakumezkoek batez ere egun horretan bakarrik erabiliko duten arropa gainera. Irungo zenbait dendetan galdeturik, gizon ezkoarenak 34.000 - 45.000 pezeta (1.550 - 2.050 libera) inguru balio dituzte eta emakumezkoarenak berriz 40.000 - 100.000 pezeta (1.800 - 4.550) libera.; Irungo *Pinkiko* arduradunaren errane-



Lesakako ezkontzetan, garai batean, elizarako ibilaldia Eskol Ttikitik abiatzen omen zen.

tan, «normalena presu-
puestoa eskatzea izaten da.
Halere, beti izaten da nor-
bait hor barrena, egitan
kosta zaiona baino gehiago
ordaindu duela esanez ibi-
liki dena». Emaku-
mezkoaren kasuan gainera,
ileapaindegiko apaintze lana
ere kontatzekoa litzateke
1.500 - 2.500 pezeta banaz

bertze. Argazki erreportaiak
50.000 - 80.000 pezeta in-
guru (2.400 - 3.800 libera)
eta bideo erreportaiak pittin
bat garestixeago, 55.000 -
85.000 pezeta artean.

Eta opariak zer?

Ezkontzak ospatzen di-
renean ezkonberriei opariak
egitea ezinbertzekoa gerta-
tzen da. Egia da, halere, gaur
egun beharbada opariak
baino gehiago dirua dela
ematen dena, eta gainera diru
kopuru dexentea, antza de-
nez. Zenbait ezkontzetan
«ezkontz-opari. zerrendak»
jartzen badira ere, badirudi
ohitura hau ez dela batere
normala inguruotan. Orain
dela urte batzuk, gizartea
hain monetarizatu ez ze-
goenean, erregaloak egiten
ziren batez ere; etxerako
baxerak, oihalak...

Dena dela, ezkongai-
ematen zaien dirua dela,
arropa berriak direla edota



Andregaiaren soinekoak
25.000 pezetatan ere aurki
daitezke.

gisa honetako besta egun
batek sortzen dituen bertze-
lako gastuak direla medio,
gonbidatuak diru dexente
gastatu beharrean aurkitzen
dira.

Testua: Joxemanuel IRIGOIEN
Argazkiak Migel ETXEGARAIK
utziak



Almandozko Beola Jatetxean maiatza edo iraila dira ezkontzarako
hilabeterik eskatuena. Hilabete hoietan nahi izanez gero,
gutierrez urte bat lehenagotik eskatu behar izaten da.

Jaione Iparragirre, Leitzako Okile tailerraren arduraduna:

«Beren eskuekin gauzak egiteko gai direla ikusterakoan, autoestima hartzen dute»

Azaroan hasi ziren eta geroztik hor dihardute sei gazte hauek egunero lan ta lan, beren ezintasunei aurre egiten. Okile taldeak Leitzako udalaren aretoan defizienteentzako tailer bat zabaldu du eta hementxe sortu da langile talde batetaz gain lagun kuadrila polita. Jaione Iparragirrek, gela honetako arduradunak, bertako atek zabaldu dizkigu.



Leitzako Ana Mari, Maite, Mila, Lontxo eta Martintxo eta Goizuetako Joxe Antonio dira «Okile» ezinduentzako tailerlean lan egiten duten gazteak

ttipi-ttapa. *Nondik nora sortu zen Leitzan ezinduentzako tailer bat antolatzeako proiektua?*

Okile. Lehenengo eskaria gurasoengandik etorri zen, beren seme-alabentzako topaleku baten beharra ikusten bait zuten. Honetaz gain, Leitzako gizarte laguntzaile edo asistente sozialari proiektu bat bururatu zitzaion, hemen atzeratu asko zeudela

adierazi ziotenean. Hasierako asmoa tailer edo zentru okupazional bat antolatzea izan zen.

ttipi-ttapa. *Baina, lehen ere ez al zegoen antzeko zerbait?*

Okile. Bai, Amazabal Patronatuak gela bat zuen. Sarrioko langileei ehuneko bat kentzen zieten hau finantzatzeko. Gero, papepera gaizki zihoala eta diru laguntzak bukatu ziren eta

gela itxi behar izan zuten.

ttipi-ttapa. *Zeintzu dira tailer honekin lortu nahi dituzuen helburuak?*

Okile. Higiene eta elikadura zaintzea, beraien burujabetasuna garatzea, gizarteratzea, eguneroko bizitza beren kasara aurrera ateratzeko gai izatea; azken finean autoestima lortzea.

ttipi-ttapa. *Eta pozik etortzen al dira?*

Okile. Bai, oso pozik, zeren

lehen zuten gela itxi ondoren hiru bat urtez etxean egon ziren, eta inongo zereginik ez edukitzea denentzat da txarra, eta hauentzat gehiago. Komeni da jende hau beti zerbaitetan okupatua egotea. Gauzak egiteko ardura hartzen dute, eta beren eskuekin zerbait sortzen dutela ikusten dutenean beren autoestima gehitzen da. Gainera, lagun

talde bat eratu da, harreman polita dute, baita tailerretik kanpo ere.

ttipi-ttapa. *Zenbat elkar-tzen zarete?*

Okile. Leitzatik bost etortzen dira eta Goizuetatik bat, baina hau duela gutxi hasi da eta goizez bakarrik etortzen da. Hementxe aritzen gara goizeko bederatzietatik ordu batetara eta arratsaldeko ordubi terdietatik bostetara. Eta abuztuan hilabete osoko oporrak izaten dituzte.

ttipi-ttapa. *Nolako aktibitateak egiten dituzue egunean zehar?*

Okile. Lehenengoz alfobrak egiten hasi ginen, eta dagoeneko bakoitzak badu berea. Orain "collage"kin hasi gara, hau da, landare haziekin,




«Beren eskuekin zerbait sortzen dutela ikusten dutenean beren autoestima gehitzen da»

lentejakin, arrozakin... koadroak osatzen. Egunero etxeko lanak ere egiten ditugu, gela garbitu, ha maiketakoa prestatu. Saia-tzen dira gu bezala bizitza arrunta eramaten; noski, beraien limitazioekin, baina badute ahalmena aukera emanez gero. Etxean babestuegiak daude eta askotan ezin dute azaldu zenbatetarainoko gai diren. Noizbehinka irteera eta txangoak egiten ditugu beste tailer batzuetara, zenbait herrietako pestetara, etabar...

ttipi-ttapa. *Nafarroan ba al dago ezaugarri hauetako beste zentzurik?*

Okile. Ez, hau bakarra da udalaren ardurapean dagoena eta berak eramaten duena. Nafarroan dauden beste tailerrak pribatuak



«Beraien artean lagun talde polita eratu da, harreman polita dute, baita tailerretik kanpo ere»

dira; Berakoa adibidez, Aspacerena da; honetaz gain Elizondon eta Huarten ere badaude.

ttipi-ttapa. *Proiektu honekin aurrera jarraitzeko asmorik ba al duzue?*

Okile. Bai, diru iturria dagoen bitartean behintzat

segituko dugu, eta hau agortuz gero, beste bideren bat jorratu beharko genuke finantzatzeko.

Testua: Eli LIZASO eta Idoia MARTINEZ
Argazkiak: Karmele AGIRRE



«Etxean babestuegiak daude eta askotan ezin dute azaldu zenbatetaraino gai diren»

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ☎

▼ Etxebizitzak

• **Elizondon** pisu berri-tua salgai, 3 logela, jangela, bainua eta egurrez moblez-tatutako sukალdea. ☎ 581089.

• **Elizondon** 70 m²ko pisua salgai. 7.200.000pzta. ☎ 581089 (9etatik aurrera).

▼ Lana

• **Frantzes** klaseak ematen dira. ☎ 450853 / 637164.

• **Beran** solfeo eta akordeoi klaseak emanen nituzke lau urtetik goitikoentzat. ☎ 630146 Kristina (eguerditan).

• **Udarako** sukaldean lan egiteko esperientzidun pertsona serioa behar dugu. ☎ 627519 / 627503.

• **Klase** partikularrak emanen nituzke, Sanferminen ondoren. ☎ 637138.

▼ Salerosketak

• **Esne tanke** bat Happi markakoa eta 320 litrokoa salgai. Gutu erabilia ☎ 599178 Urdazubi.

• **Frigorifiko** ttikia eta labadora bat salgai. Egoera onean daude eta merke emanen nituzke. ☎ 631338 (eguerditan eta arratsetan).

• **Sukalde ekonomikoa** frantzes salgai Beran. ☎ 631058.

• **Idazmakina**, Olivetti CT-606 markakoa, estrenatu gabea salgai. ☎ 580570.

• **Ariston** markako **gas sukალdea**, labea eta lau su su dituena. Ia-ia berria dago eta ez du portabonbonarik. 18.000 pezetan salgai. ☎ 630377.

• **Fagor** markako **sukalde**, labea eta lau su elektriko, portabonbonarik gabe salgai 15.000 pezetan. ☎ 630377.

• **Bi artzai zakurkume** salgai, hiru hilabetekoak. ☎ 630082.

• **Pointer** arrazako txakurkumeak salgai.

Egiakzkoak eta politak. ☎ 610761.

▼ Denetarik

• **Eskubaloiko** bi porteria eta saskibaloiko saskiak eskuratu nahi genituzke. ☎ 451555 (Malerrekako eus-kaltegia).

• **Pisu** bat osatzeko neska bat behar dugu Burlatan. 93ko uztailatik 94ko uztailara. Oso ekonomikoa. ☎ 453174 edo 453344.

▼ Harremanak

• **Urdazubiko** Maria Angeles Mitxelenari, zorionak zure urtebetetze egunerako (93-VI-30), egun on bat pasatu eta urte aunitzerakoz. Zure alaba.

• **Erratzuko** Maria Jesus Rekarerentzat zorionak eta urte aunitzerakoz, egun on bat pasa ezazu. Zure lagun batek desatzen zaitu, ez zaituena ahazten. Mari Luz.

• **Urdazubiko** Aliziari, zuren 21 urtebetetzeagatik zoriontzen dizut, retraso pixka batekin. Elizondotik.

• **Zorionak** Arantzako 7. eta 8. mailako mutilei oso politak direlako. Bereziki Igor, Gaizka eta Asierreri. Hau neska batzuen partez, Bartzelonak ezagutu genituenak.

• **Urdazubiko** Pedro Fagoagari zorionak eta urte aunitzerakoz izan daidela (93-VI-29) egun on bat izan daidela. Zure auzoko neska bat. Mari Luz E.

• **Iturengo** Itziarri: Zorionak bere urtebetetzean (uztailak 5). Txanpainaren zain dagoen goizuetar baten partez.

• **Ikus laguna**, goiza heltzean garaipena gure ondoan. Borroka gaitetzen, goiz hori ikusi arte. Sutagar, jotake, irabazi arte. Zuretzat.

• **Arantzako** Begoñari: oso ondo pasa nuen Bordatxon. Neska oso jatorra zara. Badakizu nor naizen. A. Erran, erran, erran.

Uda ikastaroak

BARNETEGIAK

Uztaila, Abuztua, Iraila: Maila Guziak + EGA

NON:

BERA
LEITZA
LESAKA
DONEZTEBE
HONDARRIBIA
BIDARRAI



Telefonoak:

(948) 22 22 46 IRUÑEA.
(948) 63 77 96 LESAKA.
(945) 28 89 22 GASTEIZ.




**Zure
nomina
helbidera-
tzeagatik**

- ▶ 45 pieza dituen portzelanazko baxera
- ▶ 1.000.000 pta.ko aseguro bat
- ▶ Eta %7rainoko interesa Superlibretan



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**LESAKAR GUZIEI
BESTA ONAK
OPA DIZKIZUEGU**



ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria anaiak

**AUPA
SANFERMIN**

ZURE BAINUA ALDATZEA
PENTSATZEN BADUZU ZATOZ
GUREGANA:

AZULEJOAK, GRES, MOBLEAK,
ISPILUAK, GRIFERIAK, MANPARAK
ETA BEHAR DITUZUN OSAGARRI
GUZIAK

Juan Arana, 3
Tfnoa: (943)
61 17 67
IRUN



TELETXEA A rgazkia

**Lesakako Udalak besta onak opa dizkizue
Lesakar eta bisitari guziei**

